

# Xalbador eguna

2009ko urriak 13an

Joxemari IRIONDO

## Deiadarren helburua

Urteak daramatza Deiadarra elkarteak *Xalbador eguna* (euskera-ren eguna) antolatzen Urepelen, geroz eta behar gorriagoa ikusten bait dute herrian eta inguruetan.

Helburu argi eta zehatzarekin hasi zen Ferrando Aire «Xabador» haundiaren miresle eta lagun taldea, Xalbador zale haundia zen Joxe Mari Aranalde antolatzaile eta eragile zuela.

Urteak joan dira geroztik, baina helburu hari lotuta jarraitzen du taldeak orain ere, haizealdi txar eta eraso guztien kontra. Urepeleko Herriko etxea, Euskaltzaindia, Eusko Jauriaritza, Conseil Regional (Akitania), EITB, Sendoa eta abarren laguntasuna izan du hasieratik. Hala ere, beti ezinean eta larri ibili ondoren, 2009an Euskaltzaindiaren laguntasun osoa izan du, nola diruz hala bere itzala eta babesa emanaz, Euskal Herri osoko erakunde bakarra denez. Eta hori biziko eskertzen du talde honek, holako ekintzetarako geroz laguntasun urriagoa den garai honetan.

Baina zein/zer da Deiadarra talde hori? –galde dezake norbaitek. Hitz gutxitan esateko, beren esaldira hurbildu nahi izan dugu, argi bezain garbi esan baitzuten 2004ko urrian plazaratu zirenean, 1976ko azaroan Xalbador hil zenez gero egindako urteroko omenaldien zama beregain hartuz:

Deiadarra elkarteak Xalbadorren *Ama Euskal Herria* (Odolaren Mintzoa, Auspoa, 205. orr.) bertsiuan oinarrituta sortu zen, 2004ko urriaren 1ean, eta elkarteari izena hemendik datorkio:

Baditaike seme hok noizbait orroitzea,  
ama, zu ganik izan dugula sortzea;  
guhaurek bilaturik zure ehortzea,  
jasan behar dugu gaztigu dorpea.

Hilobi huntan noizbait norbait balabila  
zure izaitearen herrestoen bila,  
lurpetik entzunen du deiadar bipila:  
Hemen dago ama bat bere haurrek hila !

Urriaren azken aldera eta azaroan urteoroz Xalbador eguna antolatzean, lehenengo helburu hura errepikatzen dute maitasunez, inguruko gazte eta zaharren bihotzetan sentimendu berdinak bizirik jarrai dezaten, esanez:

Deiadarra elkartearen helburuak berdin jarraitzen dute orai ere:  
Gure nortasuna eta Xalbadorrek utzi daukun mezua bizirik atxikitzea nahi dugu iparraldeko euskaldunen artean ere.

### Urtero lema berezia

Xalbador bertsolari haundia gogoratu eta ohoratzean, euskara dute helburu Deiadarrak eta Euskaltzaindiak. Baina urtez urte, lema eta helburu ezberdina darabilte Xalbadorren irudia eta izatearekin lotuta.

Aldi berean, egun honetako ospakizunean beti pentsatu izan dute Xalbadorren lagun haundiekin. Hala nola: Joxe Mari Aranalde, Antonio Zavala, Fernando Artola *Bordari*, Mikel Atxaga, Mattin, Manuel Sein *Xanpun*, Teodoro Hernandorena, Mitchel Laveguerrie, Oxobi, Matxin Irabola (Senpere), Panpale Larralde (Luhuso), Dargaitz, Etxemendi, Ximun Ibarra *Zubikoa*, Erramouspe, Azkarrain, Ithurria, Etchaunbiak, Heletako Aintziart, Aldudeko Harriet, Bankako Joanes Iriarte, Juan Joxe Eizmendi *Errexil*, Martziel Larrosa, Larramenditarak (Suheskun), Telletxea, Capdeville, Arrangoitzeko Gariador, Amikuzeko Etxexuri, Hendaiako Meltxor, Irisarriko Larramendi, Sarasola, Pello eta Kattabil, Xetre, Intzabi, Trounday, Hargindeguy, Hirigaray, Goikoetxea

*Akotei*, Ardantz, Ernest Alkat, J. Arrosagarai eta iparraldeko bertsolari eta bertsozaleen zerrenda luze eta oparoa osatu duten beste hainbatekin, Urepeleko maisuaren itzalean adi-adi izango ditugula uste baitugu auskalo nondo zeruetatik.

Baina horiek denak gogoan, lema horren norabidea aldatuz doa urtez urte, aldi bakoitzerako gai bat hautatu eta gogoratuz espreski. Azkenengo urte hauetako kronika labur bat egin behar bada, honelatsu laburbilduko genuke Urepeleko festa:

### **2004: Xalbador gogoan**

Azaroaren 7an egin zen Xalbador eguna izan zen Deiadarra taldearen lehenengo ekintza plazan. «Gure nortasuna eta izatea galtzen ari baita hemen, geuregain hartu nahi izan dugu egun hunen antolatzea, ahal den neurrian geure nortasuna eta sustraiak indarberritzen saiatzeko», esan zuen taldeak bere norabidearen berri emanez.

Goizeko 10:30etako mezaren ostean, Xalbadarren *Odolaren mintzoa* (Auspoa 290) liburuaren 3. argitalpenaren aurkezpena egin zuen Antonio Zavalak. Eta jarraian, lagunarteko bazkaria egin zen ezker paretan, Aldudeko Magali Zubillagak kantuz gozatuta. Eta gero bertsolarien saioa, Oihane Enbeita, Sustrai Colina, Fermin Mihura eta Jean Louis Harignordoquy *Laka* bertsolariekin. Urteoro bezala, erromeria eginez amaitu zen eguna.

Jendearen aldetik erantzun ona izan zuen taldearen lehenengo agerraldiak, eta aurrera egiteko erabakia hartu zuen.

### **2005: Xalbador eta mendia**

Baxenafarruko bertsolaritzaren argimutila eta mendiko semea izaki, eta bere ingurunearen maitale sutsua, sarritan aipatu zuen mendia Xalbadorek; eta gai horretan oinarrituta egin zen 2005eko Xalbador eguna.

Egitarauari dagokionez, goizean goiz, 7:30eko mendi ibilaldiaren hasi zen eguna, Auñamendi elkarteak antolatuta, berrehun bat lagun ibiltari zirela.

10:30etan, meza izan zen; eta gero, Jon Beloki eta Patxi Lasca-ray-k egindako Euskal Herriko eta munduko mendien argazkien erakusketa. Bazkaritakoan Baigorriko *Asteazkenekoak* taldeak kantatu zuen. Eta aurreko irailaren 23an hil zen Joxe Mari Aranalde goraldtu genuen Xalbadorrekin batera, bera izan bait zen askotan, 1976ko azaroaren 7an Xalbador hil zen ezkerreko egindako omenaldi guztien antolatzaile, eta Urepeleko bertsolari haundiaren lagun min eta azertzaillerik zintzoena. Pilotalekuan bildu ziren bazkaldarrei Joxe Mari Aranalde zenari buruz egindako bideoa erakutsi zitzaientzen, haren lagun askoren testigantzak jasoz. Eta bazkalondoan, bertsolariak izan ziren: Gillen Iribarren eta Mizel Mateo bertsolari gazteak, Andoni Egaña, Xabier Amuriza eta Maialen Lujanbioren saioa, Aranalde zenaren aipamen askorekin.

Bertso-saioaren ondoren, erromeria Urepeleko plazan Arrosako *Txaranga* trikitilariekin.

## 2006: Xalbador eta Mattin

Gai bat behar bazan, egokietan egokia zen Xalbador eta Mattin elkarrekin omendu eta goraltzea, urriaren 22 hartan; eta biak hartu ziren helburu. Besteak beste, "Mattin eta Xalbador" (Auspoa 301, Antonio Zavala-Joxemari Iriondo) liburua argitara eman zen, haiek berezi ezinak bait ziren, liburuaren aurkezpenekoan esan bezala:

"Zergatik Mattin eta Xalbador elkarrekin? –galdetu ziguten ora-in-tsu pretsaurreko batean. Erantzuna erraza zen guretzat: Xalbador eta Mattin berezi ezinak izan dira bertsozale gehienontzat iparraldean zein hegoaldean. Guk hegoaldeko bertso-saioetarako ia beti biak batera gonbidatzen genituen, elkar osatzen zute-eta, biak elkarren osatzaile eta dotoregarri zirela. Horrela osatu zuten bien artean Iparraldeko bertsolaritzaren aldi eder bat, bat serio eta bestea beti irribarretsu... Inoiz entzun izan genion Joxe Mari Aranalde zenari "Xalbador eta Mattin, Euskal Herriko Don Kixote eta Santxo" zirela, zentzurik

onenean. Bestalde, Mattinen bertsoa aski esanguratsua da bien batekotasuna frogatzeko:

Biak bertsutan ibili gira aspaldi Euskal Herrian;  
hemendik kanpo ere gu biak izanak Kalifornian.  
Hau beti gizon seriosago, ni berriz arrailerian.  
Besta batean bikote ona biek egiten ginian.

(Lagunari agur, Auspoa 298, 304 or.)

Urriaren 21ean, larunbata, haurren txokoa, taloak, *Peruketan* musika taldearen saioa eta Benito Lertxundiren kantaldia egin ziren plazan eta pilotalekuan.

Urriaren 22an, berriz, Xalbador eta Mattinen argazki erakusketa goiz osoan zehar. Eta aurreko urteetan bezala, lagunarteko bazkaria eta bertso-saioa, pilotalekuan. Lagunarteko otordu bitartean, Xendari-neko ahizpek kantu-saio ederra eskaini zuten –Xalbadorren alargun Leoni Aireren senitartekoak dira–. Markinako *Xemein* abesbatzak ere saio berezia egin zuen bazkari garaian. Gero, ohitura denez, bertsolariak: Jon Azpillaga, Andoni Egaña eta Xebastian Lizaso.

## 2007: Xalbador eta Diaspora

Seme bat Iparrameriketara artzaintzara joana bait zuen “Xalbador eta Diaspora” lema hautatu zen 2007rako. Xalbadorrek eta Iparrameriketara joan ziren artzainek bidegurutze eta lertxunetan marraztuta utzi zituzten irudien bideoa eman zen *euskal diaspora* aurkeztuz, eta jarraian hizlari eta bertsolariak, hala nola, Jose Mailla (Renoko Unibertsitateko liburutegiaren arduraduna eta antropologoa), Johny Kurutxet (San Frantziskoko bertsolaria), Jesus Goñi (Ornoz-Nafarroan jaio eta Nevadan bizi den bertsolaria), Joseba Etxarri (Diaspora galetan ikasia), eta Mikel Berekoetxea (Gorriti-Nafarroan jaio eta Chino-Kalifornian bizi den bertsolaria). Egurdiko mahainguruaren aurkezle eta zuzendari Xabier Euzkitze izan zen.

Urriaren 13an, larunbata, jendetza haundia bildu zen lagunarteko afarian, Urepeleko istorio zaharrik bitxienak kontatu eta kanta zaharrak abestuz.

Igandean, urriak 14, mendi ibilaldia eta meza izan ziren goizean. Eta ondoren, arestian aipatu bideoaren erakusketa eta hitzaldia.

Eguerdian, Baigorriko *Arrola* dantza taldearen saioa, herriko plazan; eta 13:30etan, lagunarteko bazkaria Xendarineko ahizpak eta Aire ahizpak kantari zirela. Bazkalondoko haurren txokoa Potxin eta Patxin pailazoak, haurren pozgarri; eta aldi berean Johny Kurutxet, Jesus Goñi, Andoni Egaña eta Sustrai Colina bertsoan (Txomin Garmendiak hutsegín zuen). Bertso idatzien sariak banatu ziren bertso-saioa amaitu zenean, eta erromeria hasi trikitixa lagun.

### 2008: Xalbador eta duela 100 urteko Urepele

Xalbadorrek maite zituen gaiei lotuta egin ohi da Xalbador eguna. Eta 2008koa ere halaxe egin zen, Xalbadorrek hain maitea zuen bere artzain etxola bisitatu eta Urepeleko argazki zaharrak erakutsiz. Bere *Odolaren mintzoa* liburuan (bost aldiz argitara emana Auspoa sailean) maitasunez goraldtu bait zuen zinez maite zuen bere sorterría, bistan denez:

Zure eremuetan dute ezarria  
 gaurko bi Napparoen arteko harria.  
 Etzare paperetan hanbat ekarria,  
 bainan aitortu nahi balute egia,  
 kondaira zaharretan zoin aipagarria  
 Roland hiltzen hauteman zinuen herria!

(*Odolaren mintzoa*, Urepele, Auspoa, 93 or)

Urriak 25, larunbata, Peio eta Pantxoaren kantaldia gauez, ezker paretan. Iparraldeko kantu zaharrak eta Xalbadorren zenbait bertso nahastu eta kantatu zituzten entzuleen atsegín. Hurrengo egunean, urriak 26, Xalbadorren etxolara ibilaldia; eta 10:30etan meza eta Xalbadorren hilobira bisita, lore-eskeintea eginez. Eguerdian, Herri hiroiak plazan, Mutriku eta Bankako taldeak nor baino nor.

Lagunarteko bazkari-garaian, Erramun Martikorena eta Xendarineko ahizpak kantari; eta bazkalondoan, bertsolariak urteoro bezala: Andoni Egaña, Txomin Ezponda, Uxue Alberdi eta Jon Enbeita. Aldi berean, haurren txokoa, ttikientzat. Eta hori dena amaitzean, erromeria festa luzatu nahi zutenentzat.

## 2009: Xalbador eta Antonio Zavala

Urriaren 10ean eta 11n egin zen 2009ko Xalbador eguna Urepelen; eta jendetza haundia bildu zen aurten ere, euri lagarrari eta haize freskoari hortzak erakutsita.

Aurtengo egitaraua, larunbat arratsean hasi zen, esan bezala, lagunarteko afaria eta Gipuzkoako Goierriko gazte talde batek Xalbadorri buruz egindako errezitala eta Xendarineko ahizpen eta Erramun Martikorenaren kantuak lagun.

Izan zen goizaldeko ordu txikiak arte erretiratu nahi izan ez zuenik. Eta, hala ere, igande goizean 9:30etarako jendea prest zegoen herriko plazan mendi ibilaldia hasteko, Xalbadorren etxola eta inguruak ezagutu edo bisitatzeko irrika biziz –perretxiokak eta gaztainak biltzeko saskia eraman zuenik ere bazen tartean–, euriak eta behelainoak ikuspegia narrastu bazuen ere.

10:30etan, Xalbador, Antonio Zavala eta Joxe Mari Aranalde gogoratuz eman zen mezaren ostean, Xalbadorren ilobira bisita egin zen, eta ondoren lore-eskeintea Lourdes Ijurjok, iparraldeko beste bertsolari zendu guztiak ere gogoan.

Agindu bezala, Urepeleko eta Xalbador eta Mattinen argazki zaharren erakusketa ere egin zen aurten egun osoan zehar, pilotalekuan. Eta herri kirolak plazan: sokatira, orga-jokoa, lasto-altzatzea, trontzariak... Euripean hasi zen plazako ikuskizuna, baina jendearen halako ikusminaz ohartuta edo, eguraldiak onera jotzea erabaki zuen, horratio.

Eguerdiko 13:30etan lagunarteko bazkaria, ezker paretan (pilotalekuan), Ondarruko arrantzale jubilatu taldeak prestatuta, larunbat arratseko afaria bezalaxe. Tartean, Xendarineko ahizpak kantari (Xalbadorren alargun Leoni Aireren bilobak). Bertsolarien saioa 15:30etan hasi zen, Maialen Lujanbio, Andoni Egaña, Xebastian Lizaso eta Amets Arzalluz nor baino nor zirela, gai librean nahiz jarritako gai ei erantzunez. Bertso onak entzuten ohitutako jendea izaki, gozatu ederra hartu zuten Urepeleko pilotalekuan bildu ziren bertsozaleek. Aldi berean, haurren txokoa egin zen plazan, herri kirolak haurrei egokitu-ta, urteoro bezala Mutrikuko taldeak zuzenduta.

Nola bertso-saioa hala haurren txokoa, arratsaldeko bostak aldean amaitu ziren, hegoaldeko jendeak egun-argiz etxera abiatzeko modua izan zezan, urrun samar egiten baita Urepele, batez ere Bizkaia aldetik-eta joaten denarentzat. Hala ere, erromeriak gogotik jarraitu zuen ezker paretan, Gasteizko trikitilari gazteak lagun, astelehenez jai egingo zela-ta hegoaldean behintzat.

Deiadarra taldeak horrela erabaki bait zuen, aurtengo lema **Xalbador eta Antonio Zavala** izan da, hainbat elkarlan egin zutenak –besteak beste, *Odolaren mintzoa* harrigarria– goraldtu eta omentzeko asmoz, Baxenafarruko mendiarte honetan. Eta 2009ko egitaraua onez onean burutu ostean, gure eskerrik zintzoena eman nahi diegu laguntasun berdingabea eman diguten Euskaltzaindiari, Urepeleko Herriko etxeari, Ondarruko arrantzale jubilatutaldeari –hura marmitakoa eta arrainaren ederra!–, Mutriku eta Donazaharreko Herri kirol taldeei, Goierriko gazte taldeari, zenbait komunikabideri –inola ere ez denei–, Koldo Mitxelena Kulturuneari eta antolaketan urteoro lagun izaten ditugun guztiei. Xalbador egunean urteoro gurekin biltzeko ohitura dutenei, berriz, eskerrik asko eta hurrengo urtera arte, Deiadarra taldea hasi baita hurrengoaz pentsatzen, aipatu laguntzaile horiek hutsegiten ez badigute behintzat.

Azkenik, Bethart familiaren eta Urepeleko zenbait gazteren laguntasuna eskertu nahi genuke biziki, nori berea emanaz. Halaber, Sendoako Joakin Berasategi ere aipatu nahi genuke, Auspoa bilduma osoa emana baitu Urepeleko herri-liburutegirako opari.

### **Aurtengo lema: Xalbador eta Zavala**

Baina, zergatik nahastu behar ditugu Xalbador eta Zavala egun honetan?, galdetu zigun norbaitek?

1960ko abenduaren 18an Donostian egin zen Bertsolarien Txapelketan ezagutu zituen Xalbador eta Mattin bertsolariak, lehiaketa hartako epai-mahaikide bait zen Antonio Zavala –Antonio Arrue, Fernando Artola *Bordari*, Koldo Mitxelena, Joan San Martin, Joan Mari Lekuona, Emile Larre eta abarrekin–. 2004ko azaroaren 7an Urepele bertan esan zuenez,



"Bitartean, Urepele ez nuen ezagutzen nik. Baina esango dizuet nola iritxi nintzan ona. Orreagatik oiñez irten eta Lindux-ko kaskora igo giñan, Joxemari Satrustegi ta biok. An guardia zibil batzuk zeuden, eta zer genbiltzan galdetu eta Elizondora joateko asmoan genbiltzala esan genien. Eta mugarik pasatu gabe joateko agindu ziguten. Gero mugaz alde onetako gendarmeeekin topo egin genuen, eta galdera berdiña egin ziguten".

Jakina denez, bigarren gelditu zen Xalbador 1967ko txapelketa hartan, eta Zavalak bere Auspoan argitara eman zituen hango bertso denak. Baina hegoaldekoenak zintatik paperera transkribatu ondoren, iparraldekoen bertsoekin (Xalbador eta Mattinenak) zalantza haundiak zituen, eta Xalbadorri erakustera etorri zen Urepelera, badaezpada ere. Halaxe, magnetofonia martxan ipiñi eta bertso-saio osoa entzun zuten. "Xalbadorrek ixil-ixilik entzun zituen bertso denak, aorik zabaldu gabe. Jaialdiaren azkenaldiko txistuak entzutean, Leoniri begiak busti zitzaizkion", kontatu zuen Antoniok. Eta gero argitara eman zituen bertso haiek denak (Auspoa 67)

1969ko azaroaren 21ean, Xalbadorri omenaldia egin zitzaion Donostiako Astoria antzokian; eta Zavalak bilduta zeuzkan Xalbadorren bertsoak ordenatu eta *Ezin bertzean* (Auspoa 85, 1969) atera zuen, Joxe Mari Satrustegi zenak lagunduta.

Gero asmo berri bat hartu zuten Zavalak, Joakin Berasategik eta beste lagunen batzuek. Liburu haundiagoak egiteko asmoa, alegia, bertsolari onenak aukeratuta. Zerrenda txiki bat egin, eta sei liburu argitara eman zituzten (Auspoa berdea saila), bat bestearen ondoren. Orduan ere biltze eta sekretariotza lanak Zavalak egin zituen, beti bezala.

Sei liburu horien artean, Xalbadorren *Odolaren mintzoa* etorri zen. Baina liburua burutzea ez zen goiztik gauera egin. Gero etorri ziren lanak eta buruhaustekak, larriak eta presak. Eta bi urte luze/labur inguru iraun zuen Antonio Zavala eta Xalbadorren arteko elkarlanak. Hala ere:

"Irukote ederra biltzen giñan arekikoa egiteko. Bordari eta Xalbador lagun miñak ziran. Ara iritxi, eta beste danok eskua ematen genion Ferranddori; Bordarik, berriz, besarkada aundi

bat... Batzuetan, irurok joaten giñan Urepelera. Lenengo Donostian Aranalde artzen nuen, eta gero, Ondarrabian Bordari. Guadalupeko Andremariari kantatuz abiatzen giñan andik.

Bordari, taldeko Errege Magoa zan, eta ardo, gozoki, arrai eta abarrez kotxea betetzen zigun, Urepelera ekartzeko. Aranalde apaiz egin zan, baiña enbajadore izateko jaioa zan ura. Ni, berriz, erderaz esaten dan bezala, *currante* bat izateko jaioa naiz eta orduan ere olaxe izaten nintzan<sup>1</sup>”.

1976ko azaroaren 7an Xalbadorri omenaldia egitekotan bait ziren Urepelen, egun horretarako liburua egin behar zen nola-hala. Eta inprimategiko lehenengo lanak egin eta frogak zuzentzeko garaia etorri zenean, hiru lagun aritu ziren: Xalbador, Joxe Mari Aranalde eta Antonio Zavala. Besteetan, Xalbador eta Antonio. Azkenean, Zavala bakar-bakarrik.

“Ala, omenaldi-eguna, azillaren 7<sup>a</sup> eldu zan. Bordari eta biok Urepelera joan giñan; baiña Xalbadorreneko nagusiari zera esan genion: guk libururik ez genuela; Joakin Berasategik gauerako ekarriko zituela, baiña ale batzuk bakarrik, bestea oraindik egin gabe zeudela-ta”.

1976ko uda ikaragarri uda mugitua izan zen, nola Zavalarentzat hala Xalbadorrentzat eta Sendoa argitaletxekoentzat ere, bai bait zekiten eskuartean zuten perla ez zela azaburuaren barreneko hostoa. Baina, “Hala, bezpera arratsean, afal-denboran, liburuak Xalbadorreneko atea jo zituen. Lau bat ale besterik ez ziren, gainerakoak astebete barru izanen zirela. Xalbadorrek hartu ahal izan zuen, beraz, eskuetan bere lanaren fruitua. Baina oso denbora gutiz”, idatzi zuen Zavalak, penaz, *Odolaren mintzoa* argitalpen zuzendua eta gehitua argitaratu zuenean, 2004ko udazkenean, hantxe, Urepelen.

2009an pilotalekuko jaialdia amaitu genuen bezalaxe, X. Leteren kantua gogoratuz itxiko dugu gure pertsiana aurtengoz, barruko lanetan jarraitzeko, kantari.

---

(1) 2005eko maiatzean Donostiako Koldo Mitxelena Kulturunean egindako elkarrizketa.

**Xalbadorren heriotza**

Adiskide bat bazen orotan bihozbera  
poesiaren hegoek  
sentimentuzko bertsoek antzaldatzen zutena.  
Plazetako kantari bakardadez josia,  
hitzen lihoa iruten  
bere barnean irauten oinazez ikasia.

Nun hago, zer larretan,  
Urepeleko rtzaina,  
mendi hegaletan gora  
oroitzapen den gerora  
ihesetan joan hintzena?

Hesia urraturik libratu huen kanta  
lotura guztietatik,  
gorputzaren mugetatik aske sentitu nahirik.  
Azken hatsa huela bertsoerik sakonena  
inoiz esan ezin diren  
estalitako egien oihurik bortitzena.

Nun hago, zer larretan,  
Urepeleko artzaina,  
mendi hegaletan gora  
oroitzapen den gerora  
ihesetan joan hintzena?